

## BIDAIA-AGENTZIEN GAINEKO MAIATZAREN 22KO 81/2012 DEKRETUAREN INGURUAN SARRI EGITEN DIZKIGUTEN GALDERAK

### 1.- Noiz argitaratu da dekretua?

[Dekretua](#) 2012ko ekainaren 6an argitaratu zen (EHAA, 110. alea)

### 2.- Ba al dago eredurik abalerako?

Bai: Hauxe dio, 28. artikuluan [irailaren 30eko 211/1997 Dekretuak, Euskadiko Diruzaintza Nagusiari buruzkoak](#): “*Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren edo horren erakunde autonomoen alde abalez osatu daitezten bermeak, behar diren egokitzapen guztiak jasoz, dekretu honetako I. eranskinean agertzen den ereduari egokituko zaizkio (...)*”.

Hau da, dekretu horren I. eranskinean datorren agiria, horixe da eredia.

### 3.- Beste bidaia-agentzia batekin frankiziatutako bidaia-agentzia banaiz, frankizia sortu, eta ordutik aurrera beti eguneratuta izan behar al dut abala?

BAI: Nahiz bi enpresa independentek elkarrekiko elkarlan-sistema hori adostu, ez enpresa bat ez bestea ez daude bidaia-agentziak arautzen dituzten xedapenak betetzetik salbuetsita; alderantziz, xedapen horien indarrez, **bi enpresek izan behar dute lan horretarako titulua edo lizentzia (edo erantzukizuneko adierazpena aurkeztuta), bidaia-agentzien zeregina landu nahi baldin badute eta lan horretarako ezarritako xedapenak ere behar bezala bete (fidantzen erregimena, aseguruak eta abar).**

Baldin soilik frankizia eragiten duen enpresak badauka lan horietarako baimena edo berorrek baina ez besteak aurkeztu badu erantzukizuneko adierazpena, halakoetan, frankizia jasotzen duen agentzia Turismoaren Administrazioaren aurrean kale egiten ari zaie turismo-arloko arauetatik eratorritako betebeharreri, aurrez baimena (titulu - lizentzia) eskuratu gabe edo erantzukizuneko adierazpena aurkeztu gabe ari delako jarduera betetzen.

Eta ezin da ametitu, ezta ere, frankiziatutako enpresak egiten duen lan horretan, enpresa frankiziatzailearen sukurtsal moduan ari denik. Tituluak edo lizentziak (nahiz aipatutako erantzukizuneko adierazpenak) emango lioke gaitasuna enpresa horri bidaia-agentziaren jardunean aritzeko, eta bulego nagusiaren bitartez jarduteko aukera izango luke, baina baita bere sukurtsal edo salmenta-puntuen bitartez ere; alabaina, titulu edo lizentziaren (nahiz aurkeztutako erantzukizuneko adierazpenaren) titularitatea daukan enpresaren jardueraz ari gara, hau da, frankizia ematen duen enpresaz ari gara, eta ez beste enpresa independente edo frankiziatzailearen batek egiten duenaz.

Funtsean, titulua edo lizentzia daukan edo derrigorrezko erantzukizunezko adierazpena aurkeztu duen enpresa ez den beste enpresa batek frankizia-erregimenean jarduera hori ematea, hori ez litzateke zuzenbidez zilegi izango.

**4.- Demagun bidaia-agentzia batek baduela lizentzia. Ba al dauka bere lizentzia beste enpresa bati lagatzerik, kanona ordaintzekotan edo biek adostutako kopurua ordaintzekotan?**

EZ: Enpresa transmitituko balitz, eta horren ondorioz titularitatea behin betikoz aldatuko balitz, ezer baino lehen erantzukizunezko adierazpena aurkeztu beharko luke, transmisio horren berri emateko; hala, Turismo Administrazioak alde aurretik eskuan izango luke titular berriaren adierazpena, zeinetan aitortzen duen jarduera hori bete ahal izateko aplikatzekoa den araudiak betearazten dituen baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, jarduerari dagokion dokumentazioa badaukala, eta jarduerak irauten duen aldi guztian beteko dituela, aurrerantzean, bete beharreko betekizunak. Alegia, **titular berriak bete beharko ditu aurrerantzean fidantza zein gizartearekiko erantzukizunaren aseguruia izateko betebeharrak eta turismo-arloko araudiak derrigortzen dituen gainerakoak.**

Inork titularitatearen gainean ezarritako betekizunak edo taldeari (handizkakoa, txikizkakoa, mistoa), fidantzei edo seguruei eragiten dioten betekizunak nola hala aldatu nahi izango balitu, aldaketa horri buruzko erantzukizunezko adierazpena aurkeztu beharko du lehenik. (5.1. artikulua).

**5.- Ba al dago “askiespen” erregistrorik?**

EZ: Euskadin ez dago halako erregistrorik, eta finantza-entitatearen ordezkarien ahalmenak egiaztatzea ez da ezinbestekoa.

**6.- Non jarri behar dira fidantzak?**

Dekretu arautzailearen 6.2. artikulua ezarritakoaren arabera, fidantzak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian jarri behar dira. Hona hemen helbidea:


Eusko Jaurlaritza  
Ekonomia eta Finantzetako Saila (Diruzaintza)  
Donostia kalea 1.  
01010 GASTEIZ

**7.- Zein aseguru-konpainiek daukate baimena arlo honetan jarduteko (kauzio-aseguruen arloan)? ( 6.2.c) art.)**

Konpainia horien erregistroa eskura dago, Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioaren Aseguruen Zuzendaritza Nagusiaren web-orrian. (Telefona: 913397000)

[Registros públicos de entidades aseguradoras y reaseguradoras](#)

Helbide horretan klik egin eta barruan zaudenean, “Ramos” atalean, hautatu “Caución” aukera.



“Ambito de aplicación” delako atalean, utzi berez datorren aukera (“Todos/as”).

## 8.- Ba al dago kauzio-aseguraren ziurtagirako eredurik?

Bai, badago: [Kauzio-aseguraren ziurtagiria](#) ( “Bidaia-agentzien jardueran aritzeko erantzukizuneko adierazpena” (atalean).

## 9.- Erantzukizuneko adierazpena aurkeztea nahikoa al da jarduera abian jartzeko?

EZ: Hona zer xedatzen duen Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 9.9 artikulua: *“Turismoko arauetz gain, honako arlo hauetakoak ere betetzea: ingurugirokoak, etxegintza eta eraikuntzakoak, makinak ipini eta martxan jartzekoak, osasun eta segurtasunekoak eta suteei aurre hartzeko arloan indarrean daudenak eta ezartzekoak diren beste guztiak”.*

Horrenbestez, bidaia-agentziaren jarduera turismo-arloko administrazioaren aurrean adierazi behar da, dagokion erantzukizuneko adierazpena aurkeztuta; baina, horrez gain, beste administrazioei ere jakinarazi behar zaie (tokiko administrazioari eta abar).

Turismoari dagokionez, erantzukizuneko adierazpenaren bidez egin behar da adierazpena (6/1994 Legearen 8. artikulua, eta 81/2012 Dekretuaren 4. artikulua);

horretarako, adierazpen-orria behar bezala bete eta [Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Lurraldeko Ordezkaritzan](#) aurkeztu beharko da. Halaber, kontuan hartu behar da orri horretan aurretik eginda behar duten zenbait gestio aipatzen direla, adibidez, fidantza jartzea, gizartearekiko aseguru-poliza eratzea. Batez ere, adierazpen horretan, sinatzaileak zera adierazten du *ERANTZUKIZUNA BERE GAIN HARTUTA: edozein administraziok edo organismo publikok derrigor eskatzen dituzten baimen eta lizentziak badituela, eta hori adierazten duten agiriak ere badituela.*

## **10.- Demagun “jasotzaile” huts moduan jarduten duen txikizkako agentzia batek bidaia konbinatuak saldu nahi dizkiela atzerriko bidaia-agentzia bati. Egin dezake halakorik?**

EZ: Arlo honetako jarduna arautzen duen [dekretuaren](#) 3. artikulua ematen dituen bidaia-agentzien taldeen definizioari kasu eginda, beste txikizkako agentzia batzuei, baita atzerrikoak izanda ere, bidaia konbinatuak proiektatzea, prestatzea, antolatzea edota saltzea, “handizkako” edo “handizkako-txikizkako” bidaia-agentzien jardura espezifikoa da.

Euskadin kokatutako txikizkako bidaia-agentzia batek beste agentzia bati bidaia konbinatuak saltzea, beste agentzia hori edonon dagoela ere, lege-hauste larria litzateke, hala dator jasota Euskadiko Turismoari buruzko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 66. b artikuluan, eta 901 – 9.000 euroko isuna ordaindu beharra ekarriko luke (aipatutako legearen 73.3 artikulua isun hori ezartzen baitu kasu horretarako).

## **11.- Zer da, definizioz, bidaia konbinatua?**

Bidaia konbinatua zer den, bidaia konbinatuak, opor konbinatuak eta ibilbide konbinatuak arautzen dituen ekainaren [13ko 1990/314/EE Zuzentarauaren](#) 2.1. artikulua zehazten du, bai eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen defentsarako Lege Nagusiaren eta horren osagarri diren legeen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko [1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren](#) 151.1.a) artikulua ere.

Hemen beheko zerrenda honetan datozen elementuetatik gutxienez bi elementu konbinatuz aurretik lotzea da, prezio globala ezarrita salduz edo eskainiz, baldin eskaintako prestazio horrek 24 ordu baino iraupen luzeagoa badu edo gutxienez gaueko egonaldi bat hartzen badu. Hauexek konbinatu daitezkeen elementuak:

- Garraioa.
- Ostatua.
- Bestelako turismo-zerbitzu batzuk, garraioari edo ostatuari lotu gabe doazenak, baina bidaia konbinatu horretan esanguratsuak direnak.

## **12.- Bidaia konbinatu batean hutsegite bat izanez gero, zein da agentzia arduraduna?**

2010eko urtarrilaren 20ko Auzitegi Gorenaren zigor-arloko salaren 1. atalaren 870/2009 Epaian ezarritako jurisprudentziaren arabera, bidaia konbinatu batean bildutako zerbitzu bat ematean sortutako hutsegite baten edo gehiagoren aurrean bidaia-agentzia

txikizkari edo handizkariak duten erantzukizuna solidarioa da bidaia konbinatuan inplikaturako agentzia guztien artean, haien arteko atzerabidezko ekintzak bazter utzi gabe.

Handizkariaren eta txikizkariaren arteko erantzukizuna zehazterakoan, Auzitegi Gorenaren Zigor-arloko Sala horrek honako argudio eta arrazoi hauek eman ditu:

- 1.- Erantzukizun solidarioko printzipio orokorra.
- 2.- Kontsumitzaileak pertsona edo sozietate batekin egiten du kontratua, eta pertsona edo sozietate horretan oinarritzen da kontsumitzailearen konfiantza.
- 3.- 90/314/EEE Zuzentarauaren helburua kontsumitzailea babestea da.

Aldez aurretik adierazitakoarekin bat etorritik, **elkartasunaren teknikak babesa eskaintzen dio kontsumitzaileari eta handizkariaren, txikizkariaren edo bien aurka jotzeko aukera eskaintzen dio, aukeran**, eta, kontratua egiteko hautatu zuen bidaia-agentziaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ondoren, ezin izango zaio hirugarrenen erantzukizunen salbuespena egotzi.

Hortaz honako ondorio hau atera behar da: EAEko lurraldean kontratatutako bidaia konbinatu batean bildutako zerbitzuetako bat edo batzuk eman ez direlako, bidaia-agentzia txikizkariaren aurkako erreklamazioa aurkeztu bada, nahiz eta erreklamazioak horren kudeaketa-eremuarekin zerikusirik ez izan, Turismo Administrazioak txikizkariari zehapena jartzeko aukera izango du, eta azken horrek zerbitzua gaizki eman izanaren azken arduradunaren aurkako alegazioa aurkeztu ahal izango du.

Interesdunak handizkariaren aurkako erreklamazioa aurkeztu badu, beste kasu batean egongo gara. Kasu horretan handizkariari zehapena jartzeko aukera badago, haren helbide soziala edonon egonda ere, bidaia konbinatua EAEko lurraldean kontratatu zelako, eta hark dagozkion atzerabidezko ekintzak gauzatu ahal izango ditu dagokionaren aurka.